

## Irakasletzako ikasleak blogak hasi dira erabiltzen ikasteko erreminta moduan

2007/11/27

**Iñaki Larrea** irakasleak blog bat sortu du, Teknohezkuntza, bere jarduera akademikoa osatzeko, eta hor materialak uzten ditu Irakasletzako 2. mailako ikasleentzat. Ordainetan baina, 2. mailako ikasleek ere blog bana sortu dute, baita 2. diplomakoek ere, guztira **180 bat blog**, denak Wordpress plataforma erabilia.

**Praktika garaian**, 2. mailako ikasleek erabiliko dute bloga egunkari moduan, eta hor emango dute beren esperientzien berri, Euskal Herriko ikastetxeetan dabilzan bitartean. 2. diploma egiten dutenek, berriz, lotu egingo dute bloga bakoitzaren **jarduera profesionalarekin**, gehienak lanean ari dira-eta.

